

AURKEZPENA

Bizitza eta osasuna modu eraginkorrean zaintzeko, beharrezkoa da trebetasun pertsonalak garatzea –erabaki osasungarriak aukeratzeko–, eta hori da osasunaren sustapeneko bost osagaietako bat. Trebetasun horiek garatzeko estrategiak eta mekanismoak lotuta daude, komunikazioaren bidez, auto kudeaketarekin, heziketa eta informazioarekin eta auto zainketarekin.

Funtsezko kontzeptuak izango ditugu auto zuzenketa, alfabetizazioa, parte-hartzea eta erabakiak modu partekatuan hartzea (EMPH), labur esanda, ahalduentzeko estrategiak. Kontzeptu horien gainean eraikiko da pertsonak haien prozesu asistentzian inplikatu dituen eredu berri bat, eta hori pertsonan oinarritutako arreta integratua indartu beharko den sistema sozial eta sanitarioaren aktibo bihurtuko da. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar pertsonaren gizarte sareetan euskarri bat izateak duen garrantzia.

Herritarrentzako Osasun Eskolen Sarea 2012ko urtean sortu zen eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak bultzatua izan zen, Kronikotasunari Heltzeko Estrategiaren argitalpenean oinarrituta.

Sortzeko helburua herritar, paziente eta zaintzaileei ahalduentzeko bidea ematea izan zen, gaixotasunaren auto zainketa eta auto kudeaketan gaitasun-estrategiak martxan jartzearen eta diseinatzearen bidez, hartara, norbanakoaren lehentasun eta balioetatik erabakiak hartzen laguntzeko, horretarako, bai profesionalak bai herritarrek partekatzen duten onetsitako ezagutza-lekua sortuz.



Horregatik guztiagatik, eta haien goiburuari jarraiki, topaketa hauek elkarren arteko ikasketa-inguru esanguratsua bultzatu nahi du, batetik, herritar, paziente eta profesionalen arteko eta, bestetik, sistema sanitarioen arteko lankidetzeta eta inplikazioaren bidez, komunean ditugun helburuen hazkundera lortzeko.

Osakidetzatik topaketa hauetan parte-hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, sarean ditugun helburuak betetzen lagunduko duten beste lankidetzeta batzuk izateko abiapuntua izango direlako esperantzarekin.